




Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria
2017ko otsaila · 324. alea

TOKIKOM

ARATOSTEEN BIXAMONA





AURKIBIDEA

- 4 Bote prontuan** Jesus Blanco
- 6 Begira** Soralucren makina
- 8 Zer berri** Aktualitateko albisteak
- 11 Hiztun komunitatea** Korrika eta Eusleak
- 12 Argazki bidez** Aratosteak
- 16 Plazan Bazan** Umeendako jolasak
- 20 Erreportajea** Gizaburuagako indusketak
- 24 Kirola** Garazi Catalan eta Ezosi Akizu
- 26 Kultura** Polito Ibañez
- 27 Teknologia** Markel Arizaga, Anartz Muxika eta Joseba Iñurrieta
- 28 Akordatzen** Soraluzeko Emakume Taldea
- 29 Nondik nora?** Ion Aranda
- 32 Bizitakotik** Inazio Er nabide
- 34 Zerbitzuak** Zorion-agurrak, hildakoak, esker-ona...

Iritzia

- 3 Neuretik** Nerea Isasti *Irakasle, ezagutzen dituzu zure ikasleak?*
- 18 Gutunak** Bitor Treviño *Casa Nostra*
- 18 Gutunak** Korner Morea *Ez zaude bakarrik*
- 18 Hausnarketa** Eraso Matxistak
- 19 Zir(r)ika** Korner Morea
- 19 Puntua** Feli Oregi *Errespetuaren balioaz*



Pil-pilean
herri komunikabidea

Aldizkaria **ASKOREN ARTEAN** egiten dugu. Bidali zure iritzia, informazioa edo proposamenak: aldizkaria@pilpilean.com • 605 706 086

Argitaratzailea

Pil-pilean Euskaldunon Elkartea
Errabal kalea 15-1, PK 27
20590 Soraluze
Telefonia 943 75 13 04

Erredakzioa

Egoitz Unamuno 605 706 086,
Gaizka Azkarate 686 028 946,
aldizkaria@pilpilean.com
Zuzentzailea Leire Ginea

Publizitatea

Gaizka Azkarate 686 028 946
publizitatea@pilpilean.com
Diseinua Goiena,
Oier Larreategi (moldaketak)

Maketazioa

Oier Larreategi
Azala Fernan Oregi
Inprimategia Gertu Koop.
Banaketa Pil-pilean Ekoizpena

Lege Gordailua:

SS-537-2000

Tirada: 2.100 ale

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Abdundia



**SORALUZEGO
UDALA**

Irakasle, ezagutzen dituzu zure ikasleak?



Nerea
Isasti

Irakasle agurgarri hori,

Badakizu zure gelako ikasleen ehuneko 5a eta 10a bitartean adimen gaitasun handikoa dela? Gutzienez!

Erretiratzen den irakasle batek, bere lan ibilbidean adimen gaitasun handiko 20 eta 30 ikasle bitartean identifikatu beharko lituzke. Zenbat identifikatu dituzu zuk? Ez da erraza, baina prestakuntza zuzenarekin ez da hain zaila.

Eta zelakoak dira adimen gaitasun handiko haurrak?

Mito asko daude haur horiei buruz. Ez dira errendimendu altukoak. Izan ere, askotan nota txarrak ateratzen dituzte. Bakarrrik egotea gustatzen zaie, baina

ez dira aspergerrak. Geldiezinak

dira, baina ez dira hiperaktiboak.

Despistatuta egoten dira, baina ez

dute arreta gabeziarik (TDAH).

Adimen gaitasun handikoa izatea

ez da inteligentzia-koefiziente altua

izatea bakarrik. Haur horiek, horrez

gain, oso sentikorrak dira, justizia

zentzua oso barneratua daukate.

Bakoitza bakarra da, baina badaude

guztiak dauzkaten ezaugarri batzuk:

azkar ikasten dute, oso hiztegi

aberatsa daukate, sentimendu oso

biziak, jakin-mina, umore-sen

zorrotza, esna daudela amesten dute

eta pentsatzeko era abstraktua eta konplexua daukate, besteak beste.

Eta zer gertatzen da detektatzen ez badira? Eskola porrota jasango dute, ez dira izango ulertuak, eta abar luze bat. Elizabeth Meckstrothek esan zuen bezela, telebista aparailuak izango bagina, gutako batzuek bost kate bakarrik hartuko genituzke, beste batzuek, gehienek, kable bitartezko kateak hartuko genituzke eta gutxi batzuek (adimen gaitasun handikoek) satelite gisa jokatuko lukete. Haur horiek izugarritzko konexioak egiteko gai dira. Buru goseti horiek ikasgela arrunt batean izatea, elefanteari jateko belar izpi bakar bat ematea bezala da; gosez hilko dituzu!

Begiratu ondo gelan. Ez dituzu ikusten?

Buru goseti horiek ikasgela arrunt batean izatea, elefanteari jateko belar izpi bakar bat ematea bezala da; gosez hilko dituzu!

Jesus Blanco

TESTUA: EGOITZ UNAMUNO ARGAZKIA: FERNAN OREGI

Elesa+Ganter Ibericak pabiloi berria eraikitzen dihardu Mendiola industrialdean. Azken urteotan enpresaren jarduna hazi egin da nabarmen, eta, aurten, eraikina handitzea erabaki dute. Jesus Blanco bilbotarra da enpresaren gerentea, eta berak azaldu dizkigu sustraiak Italian eta Alemanian dituen Soraluzeko filialaren nondik norakoak.

Zein da zuen enpresaren jatorria?

Hasieran *Gabilondo-Resinol* zeukan izena. Soraluzeko Jauregi familiak sortutako lantegia zen eta Jesus Jauregi zen jabea. 1997an *Elesa* eta *Ganter* enpresekin hitzarmen bat sinatu zuten, eta partizipazioaren %60a erosi zuten. 2010. urtean gainerako partizipazioa erosi zuten, eta %100aren jabe egin ziren. Une hartan hartu nuen nik gerentziaren ardura.

Enpresa italiarra eta alemaniarra da, ezta?

Bai. *Elesa Monzan* Italian dago eta 400 bat langile ditu. Maniobrarako produktuak egiten ditu, plastikozkoak, guk bezala. *Ganter*, berriz, Alemaniako hegoaldean dago, eta produktu berdin egiten duten arren, haiek metalezko produktuak egiten dituzte.

Azken urteotan zelakoa izan da enpresaren bilakaera?

Asko hazi gara. 2010ean, fakturazioa ez zen milioi batera iristen eta, zazpi urteren ostean, lau milioi euro fakturatzea lortu dugu. 2010etik hona, langile kopurua ere ia hirukoiztu egin dugu. Momentu honetan *Elesa Ganter Ibericak* 19 lankide gara, horietatik hamalauk Soraluzeko lantegian egiten dugu lan, eta gainerako bostek, komertzialek, kanpoan.

Zer ekoizten duzue?

Manipulaziorako osagaiak egiten ditugu, heldulekuak, edozein motatako makina edo tresnetan erabiltzeko.

Hazi egin zarete krisi ekonomikoak gogorren jo duen garaian.

2010ean laneko funtzionamendua aldatu genuen eta dena aldatu zen. Panorama orokorrari begira, gu, zorionez, salbuespena izan gara. Orain zazpi urte laugarrenak ginen eta momentu honetan liderrak gara Iberiar penintsulan.

Zela lortu duzue hori?

Lan handia eginda (barreak). Enpresak potentzial handia zuen hazteko eta krisi betean egon arren, asmatu dugu salmentak handitzen. Mundu mailan kalitate onenenetakoa dugun ekoizleak gara, eta ia bakarrak Europan. Merkatuko nitxo tradizionalekin batera, bestelakoak ere landu ditugu, dena.

Berrikuntzan erreferenteak gara. Italiatik datorkigun teknologiarri esker, aukera dugu produktu berezi asko egiteko. Adibidez, Danobatek zeozer arraroa eskatzen badigu, guk egin egiten diogu.

Zein dira zuen bezero nagusiak?

Gure bezero nagusiak *Ulma Packaging* eta *Fagor* Industrial dira, gainerakoak txikiagoak dira. Guk, batez ere, Espainian saltzen dugu, baina baita Mexiko eta Holandan ere.

Urteotan asko aldatu da lan egiteko modua?

Bai. Gaur egun, inork ez du nahi higiezin handirik izaterik biltegian. Hori dela-eta, unean uneko eskariekin lan egiten da, bolumen txikiko baina balio erantsi handiko ekoizpenetan. Produktu merkeak Europatik kanpo egiten dira. Gero eta herrialde arraragoetara saltzen dugu, eta, gero eta konplikatuagoa da dena. Baina ez dago besterik, hau horrela da. Edo jarraitzen duzu edo hil egiten zara. Ez dago besterik.

Zer dela eta erabaki duzue beste pabiloi bat egitea?

Eraikina txiki gelditu zaigulako. Bulegoetarako lekua behar dugu, biltegirako... Pabiloi berrian 1.200 metro karratu gehiago izango ditugu. Bertan ipiniko ditugu biltegia, bilera-gela berria, osagaiak erakusteko gunea... Guztira milioi bat euroko inbertsioa egingo dugu. Guretzat hori oso inbertsio handia da, baina ezinbestekoa da enpresak hazten jarraitzeko modua izan dezan.

Zelakoak dira etorkizunerako aurreikuspenak?

Onak. Hazten jarraitzea da gure helburua. Ez dakigu noraino helduko garen, baina guk bilatzen duguna haztea da.

Soraluzen kokatuta egoteak zein abantaila eta desabantaila eskaintzen dizkizue?

Euskadiren bihotz industrialaren erdian gaude, Espainiako eta Europako gunerik garrantzitsuenetako batean, eta, gainera, autopistaren ondoan. Dena hobetu daiteke baina...

Zertan ikusten duzu hobetu beharra?

Errepidetik industrialdera dugun sarbidea, esaterako, ez da egokiena. Kamioi trafikoa handia dugu eta askotan kolapsatu egiten da. Aparkalekuekin ere arazo handia izaten dugu. Aparkaleku plazak bete egiten dira langileen autoekin, eta kanpotik norbait etorri eta autoa lagatzen badu, demagun, egun batzuetarako, arazoak sortzen dira. Ez du konponbide errazik, baina horixe da dugun arazorik handiena.



***“Milioi bat
euroko inbertsioa
bideratuko dugu
pabiloi berria
egiteko”***


JESUS BLANCO


Inoizko makinarik handiena

ARGAZKIA: SORALUCE S. COOP
TESTUA: EGOITZ UNAMUNO

Soralucek amaitu berri du inoiz egin duen makinarik handiena: 13,5 metro altu, 17 metro luze eta 500 tonatik gorako pisua du. Italiako MPC enpresak eskatuta egin dute; energia generadore erraldioen motorrak mekanizatzeke erabiliko dute. Kostua: 6 milioi euro. Jesus Gil soraluzetarrak koordinatu du urte bi inguru iraun duen prozesua. Orain, desmuntatu eta Bilboko portura eramango dute, eta handik Italiara, itsasontziz.

Soraluc S. Coop.-ek 220 langile inguru ditu gaur egun; horietatik 27 Soraluzen bizi dira. Laster, antzeko beste makina bat egingo dute, Hego Afrikara bidaltzeko.





Aldarrikapena eta festa parekidetasunaren alde egiteko



Eraso matxistak salatu eta emakumezkoiei babesa adierazteko otsailaren 22an egin zen elkarretaratzea. ARGAZKILARIA: AITZIBER MAYO

Martxoaren San Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna ospatuko da eta Udaleko Parekidetasun Batzordeak eta herriko eragileek (Emakumeen Topaguneak eta Korner Moreak) hainbat ekimen antolatu dituzte egunaren bueltan.

Korner Morearen gonbitea

Korner Moreak egitarau “berezia” prestatu du aldarrikapena eta salaketa jai giroan egiteko. Aurtengo aukeratu duten leloa NI NEU da, “estereotipoez biluztu eta makillajearen atzean benetan

zelakoak garen ikustaraztea nahi dugu: ederrak, potolak, iletuak eta umore txarrekoak ere bagarelako. Hori dena eta askoz gehiago gara”. Herritarrei parte hartzeko dei egin diete “sekulako egun polita izango da eta”.

EGITARAUA

Martxoak 7, martitzena

19:00etan, “FMG” Addis Abeba (Etiopia) –2008- film laburraren proiektzioa eta solasaldia Patricia Ponce eta Nerea Aginakorekin (Haurralde Fundazioa), antzokian.

Martxoak 8, eguaztena

19:00etan Kontzentrazioa (poesia eta sorpresekin).

Ondoren, poteo aldarrikatzaile feminista.

Martxoak 11, zapatua

Nazioarteko II. Kuleruak Buruan Eguna

13:00etan Poteo alai.

14:30ean Bazkari Herrikoia Arrano elkarte.

20:00etan Mantazpitik

gonbidatuekin, Gaztetxean.

23:00etatik aurrera musika eta karaokea.

Zibismoaren ordenantza adosteko bilerak

Udalak otsailean jarri du martxan zibismoaren ordenantza adosteko prozesu parte hartzailea.

Dagoeneko hiru bilera egin dituzte ordenantzaren zirriborroa eztabaidagai hartuta. Laugarren eta azken bilera 16an egingo dute.

BBVAaren bulegoa itxi dute

BBVAk itxi egin du herrian zuen bulegoa. Bankuak erabaki du 15.000 biztanletik beherako herrietan dituen bulegoak ixtea, 132 inguru, Espainiar estatu osoan. Kutxazain zerbitzua, oraingoz, mantendu egingo dute.

Zuzendaritzakide berriak Itxaropenan

Joan zen martitzenean batzar nagusia egin zuen Itxaropenak; bertan, zuzendaritzako kide berriak aukeratu zituzten: Maria Luisa Gantxegi, Elena Vaga, Iñaki Quintanilla eta Sergio Zabala. Orain, presidente, altxortegiaren arduradun eta idazkari karguak hautatu beharko dituzte.



Sinaduren erdiak astebetean

Soraluzeko Gure Esku Dagok joan zen egunean ekin zion maiatzaren 7ko galdeketarako sinadurak batzeari. Astebeteko epean batu beharreko sinaduren erdiak baino gehiago batu ditu: 260. Guztira 400 herritarren sinadurak batu nahi dituzte; horretarako, martxoan zehar mahaia jarriko dute kalean,

eguenetan, barixakuetan eta zapatuetan. Bestalde, otsaileko batzarrean erabaki zuten zein izango den maiatzean herritarrei egingo dieten galdera: "Nahi al duzu Euskal Herri Independentente bateko herritarra izan?". Guztira, 148 herritarrek parte hartu dute galdera adosteko egin duten prozesuan.



Zuhaitz eguna

Berrogei-bat herritar batu ziren udalak eta mendi-taldeak antolatu zuten II. Zuhaitz egunean. Hogeita hamar-bat haritz-landare sartu

zizuten Urkiazelai baino goraxeago dagoen Zubero izeneko lur-sailean. Ondoren, hamaiketako egin zuten Izei elkartearen.

KEXAK, TXALOAK ETA GALDERAK

Ezinduendako aparkalekuak Arraikuan

Arraikuako aparkalekuen gaineko kexa dela-eta, Maider Ruiz Inurrietak ondorengo idatzia helarazi digu: "Duela urte batzuk, ezinduendako aparkaleku bat eskatu genuen nire aitaren izenean, berak autoa hartu behar duenean egin behar dituen maniobrak direla-eta, guztion segurtasuna bermatzeko asmotan. Orduetik, aitaren autoa guztiok aparkatu izan dugu bertan, ahalik eta kalte gutxiaren eragiteko. Urtearen hasieran, ordea, udaletxean kexa bat ipini zuten erabilera desegokia egiten genuela egotziz. Hori horrela izanik, autoa gidatzen aita ez den beste norbait doanean, ohiko aparkalekuetan uzten dugu, baina aurreko alean, kexa bat zetorren arrazoi horregatik. Badakigu guztiok desberdinak garela eta guztion iritziak ez datozela bat, eta gure asmoa ez da inori kalte egitea, ez leku batean eta ez bestean uzten dugunean. Zer egin behar dugu?"

Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: aldizkaria@pilpilean.com
943 75 13 04



Itsaso, Nerea eta Leire, Ludotekako hezitzaileak.

Kukumixok kudeatuko du ludoteka

Urtariletik uztaiera bitartean Kukumixo aisialdi-taldeak kudeatuko du *Parrandan* ludoteka, udalak kudeaketa esleitzeko lehiaketa prestatzen duen bitartean. Denbora tarte horretan Leire Garcia soraluzetarrak eta Itsaso Egaña

elgoibartarrak jardungo dute hezitzaile lanetan, Nerea Bollar udal-langilearekin batera. Udalak iragarri du ludotekaren lokal berriaren inaugurazioa hilaren 10ean egingo dutela, arratsaldeko 17:00etan.



Gaztelekutik Valdezcarayra

Joan zen hilean, Valdezcarayko estaziora eskiatzera joateko irteera antolatuko duen Gaztelekuak. 12-16 urte bitarteko 59 gazte joan ziren Errioxara Kukumixo aisialdi-taldeko

bost hezitzailearekin. Irteerak izan duen arrakasta ikusita, etorkizunean ere antzekoak antolatzeko asmoa azaldu dute.

Hitzaldia gaitasun intelektual handiko haurrei buruz

Hilaren 28an, antzokian, Begoña Suarez *Aupatuz* elkarteko presidentek hitzaldia eskainiko du gaitasun intelektual handiko umeen inguruan. Hitzaldia hezkuntza-komunitateko eragileei zuzendua egongo da, irakasleei eta gurasoei, batez ere.

Ekonomikoki laguntzeko eskaria Sarek

Soraluzeko Sare Herritarrak ohartarazi du presoen giza eskubideen alde diharduen erakundea egoera ekonomiko larrian dagoela, eta bazkide egitera deitu ditu herritarrak. Guardia Zibilak 2015eko manifestazioan konfiskatutako 104.000 euroak bueltatzeko eskatu dute. Auzitegien ebazpena datozen egunetarako espero da.

“Errespetua” zeharlerro moduan

Eskola Herritarrak otsailean egin zuen batzarrean erabaki zuen “errespetua” lantzea zeharlerro moduan, hainbat ikuspuntatik gaian sakonduz, hala nola, elkarbizitzan duen eraginean (gatazken kudeaketan); feminismoaren ikuspuntutik eta haurren heziketarako gako moduan. Hilean formazio-saio bana antolatuko dute.

Korrika antolatzeko batzordea martxan

20. Korrika antolatzeko batzordea martxan da dagoeneko, eta herriko hainbat eragile ari dira parte hartzen. Otsailean egin zen lehenengo bilera eta martxoaren 9an egingo da hurrengoa, arratsaldeko 18:30ean, AEKren lokalean (kiroldegian). Bertan erabakiko dira aurten Korrikaren inguruan antolatuko diren ekimenak zein izango diren, eta kilometroen banaketa ere egingo da. Korrika apirilaren 7an pasatuko



da herritik, azken berrien arabera, 23:45 aldera. Mahai gainean dago egun horretan afaria eta ikuskizun parte hartzaileen bat antolatzeko aukera, besteak beste.



Eusleak, hizkuntzari eusten irakasteko egitasmoa

Urritik abendura bitartean Plaentxi herri-ikastetxeak hizkuntzari eusten irakasteko egitasmo pilotua izan du martxan. Nerea Irusta hizkuntza normalkuntzarako arduradunak azaldu digunez "egitasmoan parte hartzea erabaki duten geletan 4-5 eusle izendatu dituzte astero, eta eusleek konpromisoa hartu izan dute gelan gainerako denekin

euskaraz egiteko. Gero, jokaerak eta sentimenduak komentatu izan ditugu". Egitasmoaren helburua hizkuntzaren gainean gogoeta eragin eta euskaraz erraztasun handiagoa duten euskal hiztun gazteei hizkuntzari eusten irakastea da, modu horretan, gainerakoek ere aukera izan dezaten egiteko.

Pil-pileanen Batzar Nagusia

Hilaren 11n Pil-pilean Euskara Elkartearen Batzar Nagusia egingo da antzokian, goizeko 11:00etatik 13:00etara bitartean. Eguneko gai zerrendan honakoak eta beste izango dira: iazko jardunaren balorazioa eta 2017rako egitasmo proposamena. Bazkide guztiak gonbidatuta daude batzarrean parte hartzera.

Zuberoara irteera maskarada ikustera

Pil-pileanek irteera antolatuko du hilaren 25 eta 26rako, Zuberoako Urdiñarbe herrian egingo den maskarada ikustera joateko. Interesa izanez gero, deitu 943 75 13 04 telefonora edo idatzi helbide honetara: koordinazioa@pilpilean.com

Aurten sagardotegirik ez

Azken urteotan sagardotegirako irteeran gero eta jende gutxiagok eman du izena, hori dela-eta Pil-pilean Euskara Elkarateak erabaki du aurten, behintzat, sagardotegira irteerarik ez antolatzea. Elkarateak zabalik laga du etorkizunean berriz irteera antolatzeko aukera.

Aratosteak argazkitan

Aratosteetako argazkien lagina duzue ondorengo.

Argazkiak: Fernan Oregi, Gaizka Azkarate eta webgunean jasotakoak.









“Ikusbera” liburuxkak ludotekan

Martxotik aurrera, Kukumixo aisialdi-taldeak “Ikusbera” izeneko liburuxka banatuko du ludotekan. Liburuxka 3-7 urte bitarteko umeendako da, eta ariketa dibertigarri eta arinez dago osatua. Nahi duenak debalde eskuratu ahal izango du hiru hilabetero, aurrez harpidetza fitxa beteta.

Ekimen hau Tokikomek bultzatu du, euskarazko tokiko komunikabideen bateraguneak, *Plazan Bazan* egitasmoaren bitartez, herri-komunikabideetan umeen aisialdia euskaraz sustatzeko. Egilea Garbiñe Ubeda da, Andoaingo Aiurri herri-komunikabidekoa.

Soluzioak

plazanbazan.eus/kioskoa/soluzioak

Marraztu eta Margotu



7 aldeak



Elur-kristalak

Elurra egin dezan, hotza eta hezetasuna behar dira. Elur malutak izatz puska txikiz osatuta baitaude. Izatz puska txiki edo kristaltxo horiek oso bitxiak dira, oso forma ederrak hartzen dituzte eta ez omen daude bi berdin... Tina! Hemen bail Hemen izatz-kristal bat erreplikatuta dago. Zein?



Osatu

Marra betan bidex, lehu elur-papain bakoitzari falto azien elementua.

1. Snowman body
2. Snowman body
3. Snowman body
4. Snowman body
5. Snowman body
6. Snowman body
7. Snowman body
8. Snowman body

a. Scarf
b. Hat
c. Stick
d. Hat
e. Hat
f. Stick
g. Coal
h. Carrot

DOMINOA

Ezogutzen al duzu domino jolasoa? Bai, ezta? Osoho ilada hau fitxetan falto diren irudirik marraztuz.

1. Snowman
2. Snowman
3. Snowman
4. Snowman
5. Snowman
6. Snowman
7. Snowman
8. Snowman
9. Snowman
10. Snowman
11. Snowman
12. Snowman
13. Snowman
14. Snowman
15. Snowman
16. Snowman
17. Snowman
18. Snowman
19. Snowman
20. Snowman
21. Snowman
22. Snowman
23. Snowman
24. Snowman
25. Snowman
26. Snowman
27. Snowman
28. Snowman
29. Snowman
30. Snowman
31. Snowman
32. Snowman
33. Snowman
34. Snowman
35. Snowman
36. Snowman
37. Snowman
38. Snowman
39. Snowman
40. Snowman
41. Snowman
42. Snowman
43. Snowman
44. Snowman
45. Snowman
46. Snowman
47. Snowman
48. Snowman
49. Snowman
50. Snowman
51. Snowman
52. Snowman
53. Snowman
54. Snowman
55. Snowman
56. Snowman
57. Snowman
58. Snowman
59. Snowman
60. Snowman
61. Snowman
62. Snowman
63. Snowman
64. Snowman
65. Snowman
66. Snowman
67. Snowman
68. Snowman
69. Snowman
70. Snowman
71. Snowman
72. Snowman
73. Snowman
74. Snowman
75. Snowman
76. Snowman
77. Snowman
78. Snowman
79. Snowman
80. Snowman
81. Snowman
82. Snowman
83. Snowman
84. Snowman
85. Snowman
86. Snowman
87. Snowman
88. Snowman
89. Snowman
90. Snowman
91. Snowman
92. Snowman
93. Snowman
94. Snowman
95. Snowman
96. Snowman
97. Snowman
98. Snowman
99. Snowman
100. Snowman

Bakoitzari berea

Zuhaitz-enbor hauek ez dute itzal ona ematen. Zein da enbor bakoitzari dagokion itzal aproposa?

1. Tree with shallow roots and a long shadow.
2. Tree with deep roots and a short shadow.
3. Tree with shallow roots and a long shadow.
4. Tree with deep roots and a short shadow.
5. Tree with shallow roots and a long shadow.
6. Tree with deep roots and a short shadow.



Inauteriak

- Zebet lore duela?
 2 3 4 5 6
- Sende gutxiaren artean, bi biki pare duela. Ze murrerak dute jantzerik?
 2 3 4 5 6
- Aurkitu elementu hauek:
- Aurkitu beste hauek ere: Elur-papain, herrixka, Banderak, piritak, Karpelak, maulharra
- Irudiko zaldy-aren erita funearen artean 8 ezberdintasun daude. (Jantziak al dituzte?)

“Casa nostra, casa vostra”

Albiste asko datozkigu azken denboretan Kataluniatik, espainiar zentsuratik pasatakoak ia danak. Prozesu soberanista abian jarri zutenetik, irain eta mespretxuak jaso behar izan dituzte katalanek espainiar gobernutik; behin eta berriz errepikatuta diete zigortuak izango direla prozesua aurrera eramaten badute.

Hala ere, estereotipoak gaindituz, gizarte irekia eta integratzailea izan nahi dutela erakutsi digute berriz ere kataluniarrek.

Otsailaren 18an, Nazioarteko Giza Eskubideen Eguna ospatzen zela-eta, ehunka mila lagunek Bartzelonako kaleetara irten eta errefuxiatuen aldeko aldarria eginez, babesa emateko nahia azaldu zuten. Orduan izan genuen Katalunia erreala ikusteko aukera.

Manifestuan ziotenez, 290 milloi pertsona baino gehiago desplazatuta bizi dira gaur egun munduan zehar, gerra edo eskubideen urraketen eraginez. Mediterraneoak 2000. urtetik gaur

arte ikusi du nola 35.000 lagunek bizia galdu duten bere urak zeharkatu nahian.

“Casa nostra, casa vostra” kanpainaren antolatzaileen ustetan Europar Batasuneko estatuek 2015 urtean hartutako konpromisoari uko egin diote. Bertan esaten zenez, Espainiar gobernuak bi urtetan 17.000 lagun hartzeko konpromisoa hartu ondoren, kopuru horren 0,07a baino gutxiago hartu du gaur egun arte.

Bigarren Gerrate Mundialaren ondoren, gizaki desplazatu gehien ezagutu den egoeraren aurrean, estatuon jarrera lotsagarria ikusita, kataluniar gizartearen atek zabaltzeko prest daudela ikusteak pozez betetzen gaitu independentziaren alde gaudenok.

Batzuen aurreikuspenei uko eginez, non independentziak itxieria eta muga gehiago ekarriko lituzkeen, katalanen eskuzabaltasuna eta solidaritatea izan liteke erantzunik egokiena mundu globalizatu honetan denok gure tokia izan dezagun.

Bittor Treviño

Ez zaude bakarrik

Martxoko agenda ilusioz prestatzen ari ginala harrapatu gintuan notizia tristiak, tratu txarren beste kasu bat Plaentxin. Amorrúa eta nazka. Mobitzen hasi eta beste 3 kasu be (gutxienez) badarela heldu da gure belarrietara. Baina hor ez dago denuntziarik. Beraz, ezin dogu ezebe egin. Inpotentzia. Erokerixia. Danok jakin eta danok ixilik. Eskuak lotuta. Hala eta be, gure babesa eskaintzia nahi dotsegu biktima guztieri. Ez zaozte bakarrik. Eta zorionak salaketa jarri dozun horri, zu aske izateko bidian zare, bide onian. Bide berri hortan ez zara bakarrik egongo. Benetan ausarta izan zara eta herrixak bere babesa erakutsi dotsu. Poliki-poliki tratu txarren gaixakin gero eta kontzientziatuago garela ematen dau. Espero dogu gutxitan izatia, baina bihar daniel bertan egongo gara. Zutik. Bildurrak bandoz aldatu arte.

Korner Morea

[Bidali gutunak aldizkaria@pildilean.com helbidera](mailto:aldizkaria@pildilean.com)

Eraso matxistak

Korner Moreak, indarkerien kontrako kolektiboak, jakinarazi du lau emakumezko erasotu dituztela herrian. Gogoetagai hartu ditugu erasoak eta hauei aurre egiteko neurriak.



Maria Olabarria
KORNER MOREAKO
KIDEA

Erakundeen babes neurriak motz geratzen direlakoan nago, batez ere, salaketa jartzen ez duten emakumeentzat. Gizarteak gero eta gehiago gaitzesten ditu tratu txarrak, baina legeek eta erakundeek ez diote arazoari behar bezala heltzen. Talde feministak arazo horiek plazaratzeko eta gogor gaitzesteko gaude, besteak beste.



Ana Sebal
MUGIMENDU
FEMINISTAKO KIDEA

Amorrúa ematen du etengabe holako gauzak gertatzen direla entzuteak. Hala ere, gertuko norbaiti pasatzen zaionean baino ez gara mobilizatzen, kasu guztiak salatu eta urteko egun guztietan mobilizatu beharrean. Bestalde, lau kasu horietatik batek baino ez du salaketa izan; horrek argi lagatzen du beldurra dagoela erasotuen aldetik, eta hutsune handiak erakundeon partetik.

Korner Morea



Gotzon Odriozola
UDALTZAINBURUA

Norbaitek salaketa helarazten digunean guk Ertzantzari jakinarazten diogu. Gizonezkoa etxetik ateratzen dute, eta epaileak kautelazko neurriak hartzen ditu; esaterako, urrutze agindua ezartzea. Koordinatuta gaude eskolarekin, osasun zerbitzuekin eta parekidetasun batzordearekin, kasuren bat detektatutakoan (salatutakoa edo ez) elkarrekin jarduteko. Gure zeregina babesa eskaintzea da.



Irantzu Benito
GIZARTE
LAGUNTZAILEA

Normalean erasoa jasan duen emakumea zuzenean etortzen da gugana. Guk baliabide ekonomikoak, asistentzia juridikoa eta psikologikoa eskaintzen dizkiogu, eta urgentziazko kasua denean, pisua ere bai. Jende gaztea gehiago etortzen da baina jubilatua ere etorri zaizkigu. Telefono bidezko laguntza zerbitzura ere dei daiteke: 900 840 111/016.



Feli Oregi

Errespetuaren balioaz

Errespetua da bai esatea; garenari, parekoari,... epaitu gabe, juiziorik egin gabe. Errespetua da gauzak diren moduan hartzea, datozen moduan hartzea.

Lehenengo gure burua errespetatu beharko genuke, bakoitza garen moduan, geure gauza on eta ez hain onekin, polit edo zatarrekin, eta gero gure ingurukoak, guraso, anai-arreba, e.a. bakoitza bere izakera, ibilera, janzteko era, pentsatzeko era eta ikuspegiekin.

Ikuspegi sistemikotik egindako lanetan ikusten da gatazka edo arazo askoren jatorria errespetu faltan dagoela, ez dugulako bestea den bezala hartzen, baizik eta gure ikuspegira eramaten dugulako; ez delako guk nahiko genukeen bezalakoa edo bere jokaera ez delako egokia gure ustez, edo lan egiteko era ez delako zuzena...

Errespetuz jokatzu gero, gatazka askok ez dute zentzurik. Bakoitzak bere burua zaindu, daukagunarekin gustora egon eta ondokoa errespetatzen jakinez gero, arazo gutxiago izango genituzke.

Gizaburuaga, toki sakratua 4.000 urtez

Gizaburuagako indusketen lehen fasean, Aranzadik hainbat elementu topatu ditu neolitotik brontze arora bitartekoak, zeramikazko ontzia eta arkulariaren besokoa, besteak beste.

ARGAZKIAK ETA TESTUA: **GAIZKA AZKARATE**

Gizaburuagako hilobia J.M Barandiaranek aurkitu zuen 1920. urtean, baina kanpotik trikuharrien ohiko egiturarik antzeman ez zuenez, industu barik laga zuen. Laurogeita hamazazpi urte geroago, iazko udazkenean, Aranzadi zientzia elkarteko kideek, zenbait boluntarioren laguntzaz, monumentu megalitikoak industu zuten lehen aldiz. Espero zuten moduan, lurperatutako trikuharriaren egitura topatu dute. Baina oraindik ez dakite etzanda topatu duten harria, jatorrian, egituraren gainean zegoen, ala albo bateko harria zen. Hori bigarren indusketak argituko du.

Indusketa-lanak gidatu dituen Jesus Tapia arkeologoaren lehen hipotesia honakoa da: Gizaburuaga toki sakratu modura erabili zutela neolitotik-brontze arora bitartean (k.a-ko 4000. urtetik 1300. urtera).

Aurkitu dituzten materialak Aranzadik Donostian duen egoitza nagusira eraman dituzte, eta, bertan, banan-banan aztertzen dihardute. Tapiak eman digu orain arte jakin dutenaren berri.

Karakate, neolito garaiko nekropolia

Mendigainean aurkitu diren dolmenen neurriei eta hezurren antzinatasunari begiratuta, Aranzadiko arkeologoen ondorioztatu dute Karakateko mendilerroa

neolito garaiko nekropolia izan zela mende luzetan zehar.

Tapiaren esanetan Gizaburuagako aztarnategi arkeologikoan “material interesgarria” topatu dute eta horrek “perspektiba onak” irekitzen ditu ikerketarako. Lehen hipotesiaren arabera, urteetan zehar hileta-errito ohiturak aldatzen joan ziren, ez ordea, leku sakratuaren kokapena. Hipotesietako bat da Gizaburuagako tumuluan aurkitutako materiala hiru garaitakoa dela; identifikatu dituzte neolito eta brontze aroko aztarnak, eta, orain, aztertzen dihardute azken-brontze aroko aztarnarik baden. Tapiaren esanetan oso garrantzitsua litzateke hipotesi hori baieztatzea, esan nahiko lukeelako trikuharriaren erabilpena uste zena baino gehiago luzatu zela denboran zehar.

Bigarren indusketa aurten

Aranzadiko arkeologo taldearen lehentasuna lehen fasean topatutako materialak aztertzea da, baina prozesu hori amaitutakoan, bigarren indusketa-kanpainari ekingo diote. Bigarren kanpaina aurten egitea aurreikusitako dute; egituraren hondoko harlauza altxatu eta azpian elementu zaharragoak aurkituko dituzten itzaropena dute.



Jesus Tapia, Aranzadiko arkeologoa, argazkia egiten. Indusketaren 5. eguna, urriak 7.



Boluntario taldea azalpenak entzuten. Kanpainaren lehen eguna, irailak 21.



Ganbararen goiko zatia. Kanpainaren hirugarren eguna, irailak 29.



Boluntario taldea harriak garbitzen. Kanpainaren bigarren eguna, irailak 28.



Azpiko harlauza bistararuta. Kanpainaren laugarren eguna, irailak 30.

Aurkitu diren objektu adierazgarrienak: errautsendako ontzia eta besokoa

Gizaburuagako indusketen lehen fasean pieza “oso adierazgarriak” topatu dituzte: neolito garaiko (k.a. 4000-3000) gezi-punta zatiak, brontze aroko (k.a. tik 1500) “arkulariaren besokoa” izenaz ezagutzen den objektua, erretako hezurrak eta zeramika zatiak, besteak beste.

Pieza gehienak ganbararen leku bereberetan azaldu dira, buruaren aldean. Hezurrak eta zeramika zatiak batera aurkitu dira eta horrek esan nahi du gorpuzkiak eta objektuak batera lurperatu zituztela. Horrek bidea irekitzen dio gorpuzkiak osorik lurperatzeko erritualetik kremazio erritualetara igaro izanaren hipotesiari (k.a. 1500 urtea).

Errautsak gordetzeko zeramikazko ontzia

Zeramika zatiekin jatorrizko pieza berregin ostean, uste dute zeramikazko ontzi hori errautsak gordetzeko erabili zutela. Hipotesia da inguruan agertu diren erretako hezurrak ontzi barruan egon zitezkeela.

Etorkizunean zeramika zatiak petrografia eta X-izpien bitartez aztertuko dituzte, eta, orduan, jakingo dute zenbat ontzi zeuden. Gainera, azterketa hauei esker jakin ahal izango dute ontziok egiteko materiala Karakaten hartutakoa izan zen ala objektuak kanpotik ekarri zituzten.

Arkulariaren besokoa

Arkulariek eskumuturrean jartzen zuten piezari esaten zaio “arkulariaren besokoa”. Gerlariak erabiltzen zuten harrizko elementua da, gezia jaurtitzera koan arkuaren sokak besoaren kontra jotzen zuenean berau babesteko erabiltzen zutena.



Zeramikazko ontzia errautsak gordetzeko erabili zutela uste dute

Gizaburuagan azaldu dena hiru zatitan apurtuta agertu da eta uste dute brontze arokoa dela (k.a. 1500).

Bestelako elementuak

Zeramika zatiak aurkitu dituzte (60) eta bestelako elementu batzuk ere bai: kuartzoko piezak, suharriak eta jaurtigaietako punta modura erabiltzen ziren harrizko xaflak. Harrizko pieza geometrikoak ere azaldu dira, neolito garaian gezi puntak egiteko erabiltzen zituztenak. Aurkitutako elementuak egiteko erabili zituzten teknikak ezberdinak dira, eta, horrek, sendotzen du gunea garai ezberdinetan erabili izanaren hipotesia.

1. Jesus Tapia ontziaren muntaketa egiten.
2. Errautsak gordetzeko zeramika ontzia.
3. Arkulariaren besokoa.



ELIZPE HORTZ KLINIKA



Zure gertuko hortz klinika, punta-puntako teknologikoa lan egiten duagu. Cad-Cam sistema berritzailea erabiltzen duagu.

Elizburu, 3 behea
SORALUCE
Tel: 943 75 25 67
e-mail: elizpeh@ymail.com

Ordutegia:
Astelehenetik ostiralera
10:00 - 13:00 eta 16:00 - 20:00

JUAN MARI ARRIANDEGIA

Arriain freskako
Etxera eramateko zerbitzua
Enkarguak hartzen ditugu

943 75 24 40
MIRKATU-PLAZA



ALKARAI
elkartas

www.alkari.org
alkari@elkarri.org 421 725 107

- Boluntarietza prestakuntza eta enbarkuntza
- Edu-tertzia proiektuetan egitza eta gurekin zentratzen
- Edu-tertzia proiektuetan eta sozialen programen garatzea
- Sorle eta kultura eremuan zerbitzu pertsonalizatuak

EDURTZA taberna

Ogitartekoak, txakor, harburgesak, pibeak eta pizza
Pisatuta tortilla egiten dira enkarguz



Santa Ana 18
Tel. 943 75 13 83

IZAGUIRRE
Igeltzeritza



Erakin berriak • Kalitatezko emaitza
Erreforma • Era guztietako igeltzeritza

50 urteko esperientzia • 610 638 913 • 640 867 289

Hortz klinika

27 urteko esperientzia

Javier Alamo Medikuzainak 6,2 20000439
Karlo Guzmán Odontologo 6,2 49.051.546

Enbatal 1 - Tel: 943 75 30 13

Itxura: gogoko anestesiaz, odontologia orokorra, proteza finkoa eta mugikorra, ortopedikaria, ortodontia, erretinak, estetikoa...



Mendata

Enkarguak egiten dira
Eramateko prestaketa da
Menu bereziak enkarguz



Tel.: 943 25 74 52 / 650 75 40 60

KLB6

Kalebarren 6
943 97 74 38
Muler-ata-erakunde mugikorra

Alas
New York
New York

Alas Jorras
BLEND
ESKIBO
New York
MAYSON SCOTCH
VERO MODA



Kontulan
abokatuak

Errenta algarpenak • Administrazio lanak
Trafikoko burokratizazio • Lan-erakunde abokatuak
Enpresen kontabilitate/auditak • Kontabilitateak

Santa Ana 13 - 1. era. 20590 Sorluzea
Tel. 943 75 17 82 / Fax 943 75 01 82

TXURRUKA JATETXEA

Sukalde tradizionala
Eguneko menua
Asteburuetako menu berezia
Karta
www.txurruka.com
Tel.: 943 75 15 81



sutarako egurra salgai
pago-egurra, haritz-egurra...

OSUMA
basolanak

img. 635 75 34 08



TXOKO KAFETEGIA

Eguneko menua, razioak, plater konbinatuak, harburgesak, ogitarteak, gosaria, pizzak...

Kalebarreneko kale kartelotan
Tel. 943 75 17 89

Enkarguak egiten dira

AURREZTU ENERGIA

Berotu eta BOMBSA ETA EGURREZKO galdarekin

fontaneria
San Andres iturgintza

639 179 696 • sanandresiturgintza@gmail.com



MENDIZABAL
okidegia
Ogia - Prentsa - Gosariak

Astelehenetik ostiralera:
09:00 - 13:15
17:00 - 20:00
Larunbetak eta igandeak
08:00 - 13:15

Kalebarren 10
Tel.: 943 75 13 99



Euskalzaletasunaren alde:



“Eibarko *Urbat* taldearekin historia egin dugu”



Garazi eta Ezosi waterpoloko baloia erakusten. ARGAZKIA: GAIZKA AZKARATE

Ezosi Akizuk (2003) eta Garazi Catalanek (1999) Euskal herriko waterpolo kopa irabazi zuten urtarrilean Eibarko *Urbat 3H* taldearekin. Lehen urtea du taldeak nagusien txapelketan eta historia egin dute Eibarko taldearekin.

Ezozik 10 urte zituela probatu zuen lehenengoz waterpolo Soraluzen. Anaiak animatu zuen probatzera eta, gaur egun, igerileku barruan kanpoan baino denbora gehiago pasatzen du. *“Deskonektatzeko formula onena da eta eguneroko bizimoduan kontzentrazio-maila altua lortzen lagundu dit”*. Garazi, berriz, lagun batek bultzatuta iritsi zen waterpolora eta bertako giroak eta lagunartek txunditu zuen: *“helburuak lortzeko azkeneraino borrokatzen eta eguneroko bizimoduan erabaki azkarrak hartzeko gaitasuna lantzen erakutsi dit”*.

Waterpolo kirol-disziplina berezia

Uretan praktikatzeko da kirol-disziplina hau ezberdin egiten duena. Jokaldi bakoitzak hogeita hamar segunduko iraupena du eta erreakzionatzeko denbora gutxi dago. Ezozik aipatu digu kirol

fisikoa eta exigentzia-maila altukoa dela, baina bakoitzaren mailara egokitzen dela.

Igeriketan maila altua ezinbesteko baldintza da, baina Garazik esan digu maila hori entrenamenduek ematen dutela: *“erakusten dizuten lehen mugimendua bizikleta da, hankak erabilia ur gainean mantentzeko”*.

Euskal Herriko kopako txapeldunak

Eibarko *Urbat* waterpolo-taldearen historiara pasa dira, taldeak nagusien mailan parte hartzen duen lehenengo urtean, Euskal Herriko kopa irabazita. Txapelketan izena emateko Gasteizko nesken waterpolo-talde batekin bat egin behar izan dute, jokalaria gutxi zituztelako *“ezustekoa izan da kopa irabaztea, inork ez zuen espero taldea sortzeko izandako zailtasunen ostean”*. Upna, Iruñeako Unibertsitateko igerilekuan jokatu zen txapelketa.

Soraluzeko bikotea ilusio handiz dago aurten martxan jarri berri duten proiektuarekin urte luzez jarraitzeko. *“Waterpolo probatzera animatzen dugu jendea, lagunarte bikainean kirol txundigarri bat praktikatzeko aukera ederra delako”*.

Udaberri txapelketako finalak Soraluzen

Martxoaren 3an, barixakuan, Udaberri pala txapelketako finalak jokatu dira. Gallas eta Herizek bigarren mailako finala jokatu dute eta ostean lehen mailakoa jokatu da. Jaialdia 21:00etan hasiko da Santamaria-Kortabariak eskuz-binaka jokatu duten partidua erkin.

Bergaran ibilaldi neurtua

Soraluzeko umeen mendi-taldeak urteko lehen txangoa antolatu du Bergarara. Interesatuak Iratxo gozodendan eman beharko dute izena. **Eguna:** Martxoak 12, domeka **Hitzordua:** 9:00etan Bergaran **Ibilbidea:** 8,6 Km eta 515+ (motza) eta 11,5 Km eta 569+ (luzea) **Prezioa:** Doan.

Soraluzek antolatuko du Debarroko pilota txapelketa

Soraluzeko pilota elkarteak hartuko du aurten LXX. Debarroko pilota-txapelketa antolatzeko ardura. Martxoaren amaieran emango diote hasiera txapelketari eta ekainaren 24ean jokatu dira finalak. Sei taldek hartuko dute parte eta guztira 28 pilotari arituko dira lehia hiru maila ezberdinetan: kadete, jubenil eta nagusiak. Atxotegi-Bolinaga bikotea dira 2016ko irabazleak.

EUSKAL UDALEKUAK

2017

UDA BETE ABENTURA, EUSKARAZ, ZURE ESKURA!

BERNEDO



1 TXANDA

// 15 egun // 100 plaza
// Uztailaren 1etik 15era
// 05 ta 06an jaiok

250€

2A TXANDA

// 9 egun // 100 plaza
// Uztailaren 15etik 23ra
// 07 ta 08an jaiok

140€

2B TXANDA

// 9 egun // 100 plaza
// Uztailaren 23tik 31ra
// 07 ta 08an jaiok

140€

3 TXANDA

// 9 egun // 100 plaza
// Uztailaren 31tik Abuztuaren 8ra
// 09 ta 10an jaiok

140€

4 TXANDA

// 16 egun // 80 plaza
// Abuztuaren 8tik 23ra
// 02.03 ta 04an jaiok

265€

GOÑI



1 TXANDA

// 10 egun // 140 plaza
// Uztailaren 8tik 17ra
// 09 ta 10an jaiok

160€

2 TXANDA

// 14 egun // 140 plaza
// Uztailaren 17tik 30era
// 05 ta 06an jaiok

230€

3 TXANDA

// 10 egun // 140 plaza
// Uztailaren 30etik Abuztuaren 8ra
// 07 ta 08an jaiok

160€

ABANIGAR

*Abanigar ez dira txandak egongo. Eguraldi, urte eta ezalderik
beste jaiotzeak leku sarrerari ere aldi ezkerreko hitzak
jarraituko! Leitar urte!*



EMAN IZENA!
MARTXOAREN 6TIK AURRERA
WWW.UDALEKUAK.EUS

informazio gehiagorako:
udalekuak@udalekuak.eus
943 90 57 66
ordutegia: 18:00 - 20:00
más info / plus d'info: udalekuak@udalekuak.eus





Polito Ibañez, aspaldiko ezaguna bueltan

Hilaren 16an, Polito Ibañez kantariak (1965, Kuba) kontzertua eskainiko du Gaztelupe tabernan. Ibañez abeslari ezaguna da Kubako kantagintza berriaren baitan (Novissima trova). Musika kubatarra eta pop musika uztartzen ditu, eta bere ahots tonu atsegina eta letra erakargarriak baliatzen, entzuleen arreta bereganatzeko. Abestu izan du Pablo Milanes, Silvio Rodriguez eta Joaquín Sabina kantariekin batera.

Polito aspaldiko ezaguna da herrian. Herriko musikazaleek gogoan izango dute 1997. urtean Gaztelupen eskaini zuen kontzertua, orduan ere Hotsak disketxeak gonbidatuta. Hogei urte geroago, erraldoi kubatarra bueltan da.

[HITZORDUA](#)

Martxoak 16, eguena
22:30etan
Gaztelupen

“Igelak” filma antzokian

Martxoaren 23an, ostegunetako pelikulak zikloaren barruan, Patxo Telleria zuzendariaren "Igelak" pelikula proiektatuko da, euskaraz.


“Saritutako argazkiak” erakusketa

Martxoaren 7tik 25era bitartean ikusgai izango dira Kontrargiren XVIII. rallyan sarituak izan diren argazkiak.

Film laburrak eta tertulia

Martxoaren 30ean, 21:00etan, proiektatuko dira aurtengo *Laburbirak* dakartzan euskarazko film laburrak. Ostean, Gaizka Azkarate eta Ekaitz Uzinekin tertulia izango da "Arrainopola" laburren inguruan.

Blascoren liburua: *Retrato enigmático*



Maria Luisa Blascok *Retrato enigmático* liburua aurkeztu zuen otsailean. Blascok azaldu zuenez, euskal mitologiako Mari eta Aker pertsonaietan oinarritutako nobela da, “atsegina eta ondo pasarazteko” heburua duena. Liburua *Falsaria* editorialak argitaratu du eta salgai dago Amazonen.

SAREA



**Markel
Arizaga**

WWW.MARKELARIZAGA.COM

Teknologia munduan gertatzen diren azken gorabeheren inguruko iritziak ematen dituen bloga da Markelena. Artikulu honetan, Facebookek internet munduko bazter guztietara zabaltzeko abiatu duen egitasmo "solidarioaz" dihardu Markel Arizagak.

Hau ez da Internet, Mark

Facebooken erabiltzaile kopurua herrialde bateko biztanleria balitz, munduko estatu handienetako bat izango litzateke herrialde hori. Horrek erakusten du bere arrakasta. Baina lortu duen arrakastarekin batera, Facebook oso ezaguna egin da pribatutasunaren inguruan duen jarrera "malguagatik".

Badago Facebookek bultzatu duen programa bat *Internet.org* izenekoa, helburutzat "Internetarako sarbidea munduko herrialde behartsuenetara eramatea" duena. Lehenengo begiratuan, ematen du Mark Zuckerbergekek gidatzen duen enpresak oso keinu ona egin duela. Hala ere, dena ez da ematen duen bezain argia.



Internet.org proiektuak ez dio, berez, mundu guztiari bermatzen Internetarako sarbidea, azpimultzo bati baizik.

Mark, berdin dio zein motatako argudioekin defendatzen duzun *Internet.org*, errealitateak oso argi uzten du ez dela bateragarria Internet sarearen izaera oinarritzkoenarekin. Solidario itxura eman arren, Facebook ez da munduan milioika pertsona berri sartzeko helburua duen proiektu bat besterik. Zer egingo dugu persona batek erabakitzen badu zer den sarean ikusi ahal duguna?

APP PROPOSAMENA



**Anartz
Muxika**

APP ETA WEB
GARATZAILEA

Quiz Up

Adin guztiei zuzendutako mugikorrenetako jokoa da, dohakoa eta gai anitzez osatua: kirola, historia, zinema eta zientzia, besteak beste. Gainera, argitaratutakoez gain, egunero gai eta galdera berriak gehitzen dituzte, gure gozamenerako.

Bakarka edo beste jokalaria batzuen aurka jokatu daiteke inolako mugarik gabe, eta, nahi izanez gero, txateatzeko aukera ere badago. Partidak amaitzean, asmatutako erantzunak kontutan hartuta, puntuazio bat

jasotzen duzu eta, puntuak pilatzen joan ahala, mailan gora egin eta sailkapen orokorrean gero eta gorago igotzen zara. Zer behar dugu *Quiz Up* jokoaz gozatzen hasteko? Android edo iOS sistema eragilea duen gailu bat eta Interneteko konexioa. Argibide gehiago hemen: www.quizup.com



PELIKULA PROPOSAMENA



**Joseba
Iñurrieta**

ZINEMA
ZUZENDARI
IKASLEA

EX Machina

Alex Garland, 2015

Zientzia fikziozko film honek adimen artifizialari eta robotikari buruzko istorio bat kontatzen du. Alex Garland idazleak zuzendu zuen eta ikuspegi kritikoa erakusten du gaur egun adimen artifiziala lantzen ari den industriaren inguruan.

Androide bati *Turing*-en proba egin behar dion mutil gazte baten eguneroko bizimodua kontatzen du filmak. *Turing* izeneko proba dela eta, robota gizakiarekin harremanetan jartzen du, eta robotak ahaleginak egin beharko ditu gizakiak ez dezan antzeman



robota dela. Hiru aktore protagonisten (Domhnall Gleeson, Alicia Vikander eta Oscar Isaac) interpretazio ezinhobeak pantailara itsatsita mantenduko gaitu. Laburbilduz, zientzia fikzioaz gozatzen duen edozeinentzako moduko filma da.



90. Hamarkada: Soraluzeko Emakume Taldea

Emakume Taldea herriko hainbat emakumek sortu zuten 1992an. 1996ko martxoan liburu azoka antolatu zutenerako, taldeak egina zuen lau urteko ibilbidea.

Etzoki Larrañagak, taldeko kideetako batek, kontatu digunez, “gaurko testuinguruarekin alderatuta, egoera guztiz desberdina zen; feminismoa oraindik ez zegoen gizartean oso zabalduta, eta erakundeen partetik hutsune handiak zeuden. Guk emakume talde kementsua osatu eta lan handia egin genuen herrian”.

Argazkian ageri den liburu azokarekin batera, beste hainbat ekimen antolatu zituzten: hitzaldiak, herriko emakumeekin egindako artelan erakusketak, ikastaroak,

bazkari herrikoiak... Eurak izan ziren herrian lehenengo aldiz Martxoaren 8ko egitaraua antolatu zutenak. Emakumeei zuzendutako ekimenak ziren, autoestimua lantzerantz bideratutakoak. Gaur egun antolatuta jarraitzen ez duten arren, kide askok harremana daukate Korner Morearekin eta feminismoa bultzatzeko ekintzetan parte hartzen dute.

Argazkian ageri direnak (eskumatik ezkerrean): Etzoki Larrañaga, Maite Larrañaga, Marga Perez de Heredia, Pili Valero, Eli Zabala, Isa Aranberri eta Ana Sebal.

Iturria: Etzoki Larrañaga.

B. Sarasketa, 1 ac **943 12 82 31**

KAFETEGIA OKINDEGIA

SUTENDO

*Kafea, opilat, ogia
pintxoak, ardoak...*

**Gozatu EIBARKO
PREZIORIK ONEKIN!**

LABADEROKUA **Egunero 06.00etatik
aurrera**

P **Iragarri
hemen zure
negozioa**

Pil-pilean herri komunikabidea
686 028 946 (Gaizka)
publizitatea@pilpilean.com

Ion Aranda (1976)

Malagan bizi den plaentxiarra



Estefania bikotekidea eta Aidan semearekin.

2008. urtean oporretara joan zen Ion Malagara lagun batzuek kotxean leku bat zutela aprobetxatuta. Neska bat ezagutu, maitemindu eta bertan geratu zen bizitzen.

Nolakoa izan zen aldaketa?

Hasiera gogorra izan zen ez nuelako inor ezagutzen. Futboleko jokatzera joaten nintzen auzoko batzuekin eta horrela egin nituen lehen lagunak. Orain, Malagako El Palo auzoan bizi naiz, arrantzaleen auzo batean; gertukoak eta atseginak dira. Duela 10 hilabete Aidan, semea, jaio zen eta oso zorionsua naiz bertan.

Zertan diharduzu Malagan?

Beste bakide batekin batera, *Terral B&D* izeneko jatetxe baten jabea naiz eta bertako sukaldeko arduraduna. Hondartzako lehen lerroan dago eta amerikar erako janaria prestatzen dugu. Soraluzen tornularia nintzen eta makarroiak egosteko ere zailtasunak izaten nituen. Gaur egun, inguruetako herrietatik gure janaria dastatzera etortzen dira; harro nago lortzen ari garenaekin.

Zer eramango zenuke Soraluzetik Malagara?

Familia, lagunak, gustoko tabernaren bat txikiteorako eta Karakate mendia.

"Kintada batera joatea eta beteranoen futbol partidu bat jokatzera gustatuko litzazkidak"

Zeren falta somatzen duzu?

Nire amarena, arrebarena, Unai eta Maitane ilobena, 76ko kinto guztiena, lagunena (ezin ditut guztiak izendatu)... Faltan dut herriko txikiteo eder horietako bat eta Ezosi futbol-zelaira joatea, Soraren partidu bat ikustera.

Baduzu herrian gertatzen denaren berri?


Sare sozialen bitartez informatzen naiz. Azken aldian izan diren lapurretek-eta arduratzen naute, ez direlako gutxi eta, kanpotik begiratuta, arazoak konponbide zaila duela dirudielako.

Euskara praktikatzen duzu?

Soraluzen ez nuen euskara asko hitz egiten, baina, harrigarria bada ere, hemen Azkoitiko saltzaile batekin dakiten apurra erabiltzen dut, bizitzaren paradoxak.

Bueltatzeko asmorik, Ion?

Bisitan joateko asmoa daukat; izan ere, badira lau edo bost urte ez naizela joan baina gelditzeko ez.



1. Jose, jatetxeko bazkideakin.
2. Terral B&D jatetxea.
3. Unai ilobarekin.
4. Ion sukaldari.


Bezeroak mimatzearen garrantzia

MIMAR ILE-APAINDEGI ETA ESTETIKA ZENTRUA

Marimar Fernandezek 21 urteko esperientzia du ile-apainketa eta estetikaren munduan. “Betidanik gustoko izan ditut estetika, ile-apainketa eta edertasun kontuak”. Lehen pausoak etxetik etxe eta jubilatuetan ilea mozten eman zituen. Ondoren, modu profesionalagoan, Bergarako Disdira ile-apaindegian ordurarte ikasitakoa praktikan jarri zuen. 2004az geroztik herrian ilea mozten eta estetika zerbitzuak eskaintzen dihardu: “Nire kontura lanean hasi aurretik beharrezko esperientzia eta formakuntza jaso nituen”.

Ekintzailea eta ausarta

Ile-apaintzaileen sektorea asko aldatu da azken urteotan eta Marimar beti ahaleginu da azken berritasunak bereganatu eta bezeroei eskaintzen. Horretarako, hainbat ikastaro egin ditu Bartzelonan, Madrilan eta Bilbon, besteak beste: “Ezinbestekoa da maite duzun horretan sinestea eta arriskatzea, eta uste dut lana eginda emaitzak etortzen direla, hori da nire filosofia”. Produktuen kalitatea asko hobetu da eta Mimar ile-apaindegian punta-puntako produktuekin lan egiten dute: Revlon, Godwel, Schwarzkopf, Osis eta produktu ekologikoak. “Gaur egun, ile-apaindegiak edertasun-zentro bilakatu dira eta garrantzitsua da denetariko zerbitzuak eskaintzea”.



“Atsegin dut jendeak bere itxura nire eskuetan uztea”

Mimar Zerbitzu osoaz gozatzeko aukera

Hainbat estetika-zerbitzu eskaintzen ditu, bezeroaren beharretara egokituak: ile-apainketa, gorputz osoko laser-tea argizari depilazioa, makillajea, tinteak, manikura eta ilea ez erortzeko tratamenduak, solariuma etab... Bezeroak behar dituen tratamendu guztiak Mimarren bertan egin ditzake.

Helbidea Gabolatx 6 behea ez **Tel.** 943751513 – 682511404

Ordutegia Asteartetik-ostiralera 9:00-12:30 / 15:00-19:30

Larunbatak 8:00-12:30 Asteazkenetan jubilatuen eguna

www.ileapaindegiamimar.com

EGUNEKO PLATERA

<p>ASTELEHENETAN Hegaluze eta txapiro marmitakoa</p> <p>ASTEARTEETAN Baba gorriak + txorizoa eta saiheskia + piparmiñak</p> <p>ASTEAZKENETAN Marisko paella</p>	<p>OSTEGUNETAN Karrillera eta barazki gisatua</p> <p>OSTIRALETAN Oilasko ½ errea + entsalada + patata frijituak</p>
--	---

+ postrea, edaria eta kafea
postre, bebida y café **10€**

Asteburuetan: karta, ogibitartekoak, plater konbinatuak... lagun eta familia arteko otorduak
 Enkargu bereziak, merendolak... deitu eta adostu aurrekontua eta menua gurekin 943 75 20 16



Jaiaren plazera, bertatik bertara

Gipuzkoa 4.0 Fabrikazio Aurreratuko Sarea

Liderrak diren enpresek fabrikazio aurreratuaren bidea erakustea enpresa txiki eta ertainei.

Hori lankidetzaz da.

ORAININDUSTRIA4.0

Laugarren industria-iraultzarako prest



ORAIN EKONOMIA

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa




ORAIN GIPUZKOA

gipuzkoa.eus/industria4-0



100 urterekin, jakinmin ase ezina

Inazio Ernabide (Zizurkil, 1917). Ehun urte bete zituen egunean, otsailaren 2an, Itxaropena jubilatuen elkarteak omenaldia egin zion Inazio Ernabideri. Opari moduan, Aitor Amorrek egindako euskal makila eman zioten. Handik astebetera, Soraluzeko EAJren omenaldia jaso zuen, Batzokian, afiliaturik nagusiena izateagatik.

ARGAZKIAK ETA TESTUA: **EGOITZ UNAMUNO**

Harritutako dago azkenaldian jaso dituen omenaldi eta dei ugariekin: “herri dana enterau da, eta ez dakit zegaittik izan dan, txokauta nao”. Hala ere, umorez hartu du ehun urtebetetzeak ekarri dion mugimendua: “harrotuta nao; andrak be esaten doste guapo naola, guapiiisimo, ta etxera juandakuan espiluan begiratu eta esaten dot neure artian: ‘aguretxo bat haiz’”.

Ernabide Donostian bizi da eta eguneroko bizimoduaz galdetuta, dio, bizimodu “normala” egiten duela: “Goizian lo egitten dot bederatzirak aldera arte. Gero pasiauegitten dot eta irakurri. Koldo Mitxelena liburutegira juaten naiz eta periodikua edo liburutxon bat irakurtzen dot”. Irakurtzeko afizio handia izan duela dio “nik asko irakurri dot. Lanian

nenbilenian be ni beti ohera liburuakin juaten nintzan. Euki izan baneu retenziñua izango nintzan intelektuala, baina gero ahaztu egitten jata dana (barreak)”.

Ahaztu ez zaizkionak gerra garaiko oroitzapenak dira. Boluntario joan zen gerrara, aitaren eta lagunaren eraginez, Izquierda Republicanarekin, baina laster, nazionalisten batailoira aldatu zen:



“Herri dana enterau da, eta ez dakit zegaittik izan dan, txokauta nao”

“Ez naiz izan inteligentia baina bai sakrifikaua; itxuria ez da txarra!”

“Hazaña batailoian jarduten zeben gaizki esaka nazionalistegaittik eta Usurbilen gendela, handik borrau eta sartu nintzan Loiola batailoian”. Beranduago, Laredon hartu zuten preso, eta presondegi batetik bestera erabili zuten: Castro, Iratxeko monastegia eta azkenik Lermara (Burgos) “trabajadoreen batailoira”. Egoera “terribleak” ikustea tokatu zitzaion arren, gerran pertsona “oso onak” ere ezagutu zituela dio, “danian dare danerakuak”.

Hogeita bat urterekin bueltatu zen etxera eta lanari ekin zion. Gaztetxotan Eibarko Star lantegian lanean ibilitakoa zen aprendiz moduan. Gerratik bueltan, Andoainean lan egin, eta lan egin ostean, Donostiako gau eskoletan jarduten zuen ikasten. Sorluzera ezkondu zen eta Argarateneko tornillerian lan egin ostean, bere kontura hastea erabaki zuen. Beste bi lagunekin batera Iterga torloju lantegia jarri zuten martxan: “lan asko egin dot, esklabuen moduan. Lehenengo hamalau ordu, gero hamabi, gero hamar...normalizau zan arte. Ez naiz izan inteligentia baina bai sakrifikaua; itxuria ez da txarra! (barreak)”.

Bizitzan izan duen momenturik gogorrena alaba eta iloba istripuan galdu zituenekoa izan omen zen: “hilabetian ez neban jan be egin eta pentzatzen neban sekula ez nebala superauko baina tira, denporiakın pasau neban haura be. Ke remedio!”. Bere bizitzan pisu handienetako izan duen beste ezaugarria, adoptatua izatearena izan da: “sei urterkin konturatu nintzan, amakin Diputaziñora juan eta negarrez ikusi nebanian. Haura momentua geratu jatan bihotzian. Ni Zizurkilgua naiz jaiotzez eta gero Osintxun bizi izan

1. Itxaropenen jaso zuen omenaldian.
2. Jose Antonio Agirre lehendakariarekin Donibane Lohitzunen. Lagun batzuekin joanda ezustean topo egin zuten (1959).
3. Medirraneoa oporretan.

nintzan Kakuatarrekin. ‘Herri umia’ esaten jakon lehen”. Bere garaian, bere jatorrizko abizena berreskuratu zuen, eta, harrezkero, harrotasunez azaldu du beti bere jatorria.

Hirurogeita bederatzi urterekin jubilatu zen. Lantegian “diru pixkat” ere irabazi omen zuen eta Donostian etxe bat erosi zuen gero, gaur egunean bizitoki nagusia duena. Bidaiatzea ere oso gustuko izan du eta asko bidaiatu du European zehar. Bereziki gogoan du loibarekin batera Londresera egin zuen bidaiak eta Mantxako kanala pasatu zutenekoa. Bidaiatzearekin batera geopolitika da Ernabideren afizio nagusienetako bat. Gaur egun ere interes handiarekin jarraitzen ditu nazioarteko gora beherak: “batez be, Estados Unidos eta Rusia”. Euskal Herriko egoera politikoaz galdetuta, epe ertainean ez da oso itxaropentxua: “hemen oindio urte asko pasau biharko dabe elkarrekin konpontzeko”.


Gidatzea izan du beste afizioetako bat, baina oraintsu, kadukatu zaionean erabaki du ez berriztea: “nik disfrutau egitten dot konduzitzen baina akzidente bat eukiko baneu, jentia esango leuke ‘merezitta jeukan, daukan edadiakin’”. Hala ere, aitortu digu Sorluzera etortzen den aldiro hartzen duela autoa, “garajian ibiltzen naiz”.

Beste ezereen gainetik afizioak eta pozak azpimarratzen dituen pertsona da Inazio Ernabide. Ehun urterekin jakinmin ase ezina mantentzen jarraitzen du “jakitzeko gogua terriblia”. Bizitza, bizi beharreko abentura bat bailitzan bizi izan du eta bizi du oraindik ere. Zorionak eta urte askotarako Inazio!

ZORION AGURRAK



Mikel Layza Albisua
Otsailaren 17an, 6 urte. Zorionak! asko maite zaitugu! Muxu handi bat denon partez.



Marta Ayora Plata
Otsailaren 15ean, 26 urte. Zorionak etxeko printzesari! Etxekuen eta Alexen partez ;)



Nora Larreategi
Otsailaren 21 ean, 7 urte. Zorionak eta muxu haundi-haundi bat. Etxeko guztien partez!



Eki Unamuno Uribetxebarria
Martxoaren 1ean, 3 urte. Zorionak eta muxu potolo bat Argateko txikixari! Etxekoen partez.



Izer eta Itxaso
Martxoaren 3an eta San 3 eta 35 urte. Muxu bana bihotz-bihotzez Etxekuen partez!



Markel Larrañaga Gallastegi
Otsailaren 18an, 2 urte. Zorionak Markel! Ondo ondo pasau zure egunian. Etxeko guztien partez.

ESKELAK

I. URTEURRENA

Jose Luis Mendizabal “Azalia”



2016ko otsailaren 14an hil zen.

Gogoan ditugu zure gizatasuna, umorea, patxada eta euskaltasuna. Eskerririk asko.

Pil-pilean Euskara Elkartea

ESKER ONA

Eneida Orbea Barrutia



2017ko otsailaren 1ean hil zen, 45 urte zituela.

Beti eramango zaitugu gure bihotzean, Eneida!

Eneidaren eta Aitorren Soralezeko koadrila.

III. URTEURRENA

Jokin Zabala Morillo



2014ko otsailaren 10ean hil zen, 67 urte zituela.

Gure ondotik joan zinen Jokin, baina beti egongo zara gure bihotzetan.

Senideak

ESKER ONA

Valeriano Madrid Sastre



2017ko otsailaren 22an, 76 urte zituela.

Betiko gogoan izango zaitugu. Eskerririk asko zuen dolumina eta babesa adierazi diguzuen guztioi.

Senideak



Janire Muñoz Pellitero

Martxoaren San, 9 urte. Zorionak printzesa eta musu handi bat! Askok maite zaitugu!



Adur

Martxoaren Iean, 15 urte. Zorionak! Amaren partez.



Julene

Martxoaren 3an, 6 urte. Zorionak etxekuen partez!



Urrategi Gantxegi

Otsailaren 26an 56 urte. Zorionak! Jarraitu halakoxe amama izaten! Etxekuen partez.

Zoriontzeko, esker ona adierazteko, jaiotzen berri emateko...

605 706 086

(deitu edo bidali whatsapp-a)

aldizkaria@pilpilean.com

HILDAKOAK ETA JAIOTAKOAK

Hildakoak

Jose Luis Iñarra Larrañaga
Valeriano Madrid Sastre
Cesar Gonzalez Fernandez
Angela Alonso Manrique
Jose Antonio Quintas Bouzas

ESKER ONA

Jose Luis Iñarra Larrañaga



Otsailaren 26an hil zen, 78 urte zituela.

Gure ondotik joan zara,
baina betiko izango zaitugu gure bihotzetan.
Maite zaitugu.

Etxekoak

ISOLATU ZURE ETXEBIZITZA EGUN BAKAR BATEAN, OBRARIK GABE. AURREZTU ENERGIA ETA ZAINDU INGURUMENA. INBERTSIOAREN AMORTIZAZIOA 2TIK 5 URTERA.

Zelulosa - egur zuntza - kortxo birrindua...

Kalegori 9, behea • 20577 ANTZUOLA | babestukoop@hotmail.com
Tel.: 615 76 56 51 - 615 76 56 50 - 943 76 60 89



SORALUCE

Setting new standards in milling, boring and turning

SORALUCE PXG

Frosatzeko multifuntzio gantry makina

Ametza gauzatu izanaren poz tasuna

2017ko otsailaren 18an



DANOBAT GROUP